



ketamina keta, special k...



Ketaminaren konposizioa **2-(o-clorofenil)-2-metilaminociclohexanona** da. Arilciclohexilaminen familiako substantzia sintetiko bat da.

Prestakin farmazeutikoa likidoa da (ketolar, ketaminol...), eta likido eszipientea lurrunduz, hauts zuri formatua du.

Ketamina-laginek ez dute aizunketarik izan ohi, eta batez besteko kontzentrazio-maila % 98tik gorakoa da*.




* Ai Laket!! elkartek EAEn egindako analisisen araberako datuak.

dosia zenbatekoa den eta nola hartzen den

02

Normalean sudurretik sartzen da.

Atsegin hartzeko erabiltzen denean, dosi txikiak 15-30 mg artekoak dira (gutxi gorabehera 0,3 mg/kg pisuko) eta dosi ertainak 30-60 mg artekoak. Dosi handiak 60-125 mg artekoak dira eta horiek gairiditzaiek areagotu egin ditzake izan nahi ez diren ondorioak.



Ahotik ere har daiteke, ur-disoluzioa edanez, baita muskulu barneko injekzio bidez ere.



hasierako ondorioak

03

01
Ketaminaren ondorioak ez dira beti berdinak. Hainbat alderdik du eragina: zenbateko dosia hartzen den, non-nola hartzen den, aldarre onean edo txarrean egon bitartean hartzen den, zer espero den, eta pertsona nolakoa den.

02
Anestesiko bat da, disoziazioa eragiten duena (gorputza eta gogamena bereizten ditu).



• **Dosi txikitik**, berehalako ondorioa hasierako euforia da, eta gutxi irauten du. Gorputzaren, gogamenaren eta ingurunearen arteko harreman berri bat ezartzen du, flotatzen ari izanaren sententzia eragiten du eta zentzumenak desitxuratzen ditu. Alkoholaren antzeko ondorioak ere eragiten ditu, hala nola ikusmen lausoa eta koordinazio eza.

• **Dosi ertainetan**, disoziazio-sententzia areagotu egiten da eta ondorio anestesikoa nabarmendu egiten da. Asaldura sententzialak gerta daitezke, hala nola ikusmena eta entzumena desitxuratzea, nork bere gorputzari buruzko pertzepzio arrotzak izatea eta neurri txikiagoan, haluzinazioak izatea.

• **Dosi handitan**, gorputza eta mundu hau fisikoki uzten delako sententzio-aldiak ager daitezke (K-Hole). Koordinazio eza, introspekzio handia eta mugitzeko eta hitz egiteko zailtasun handia sortzen da.

03
Maila fisikoan, maiztasun kardiako handiagotu egiten da eta ondorioz takikardia eragin dezake. Hantetako dardara txikiak izan daitezke, eta, berebat, zorabioak eta goitikakoak. Dosi handituz gero, arnas etsialdi arin eta iragankor bat sortzen da.

ondoriak epe ertain eta luzera


04

01
Ohiko kontsumoaren ondorioz oroimen-asaldurak izan daitezke, zeinak, hartzeari utziz gero, leheneratu egiten baitira normalean.

02
Gehiegizko kontsumoak arazo psikologiko latenteak eragin ditzake, antsietate-, depresio- eta psikotiko-motakoak. Nahiz eta behar bezala dokumentatuak ez dauden,

beste konplikazio batzuk ere sor daitezke, esate baterako, giltzurrunetako arazoak edo ikusmen-arazoak.

03
Tolerantzia handia garatu duten pertsonak arazoak izan ditzakete anestesia osoa edo lokala erabiliz noizbait ebakuntzarik egin behar badiete.



04
Ketaminak tolerantzia handia eta berehalakoa eragiten du, eta mendekotasun psikologikoa eragiteko ahalmen handia du. Horren ondorioz, zaila da harekiko mendekotasuna garatu dela onartzea.

nahastearen ondorioak

05



Alkoholarekin batera, bizi-funtzioen gaineko ondorio depresorea indartu egiten da. Gauza bera gertatzen da beste depresore batzuekin nahastuz gero (lasaigarriak, opiazioak, GHB...).



Bizigarriekin nahastuz gero, bi substantzien ondorioek elkar nagusitzen da eta ukitu psikodelikoa mantendu egiten da. Zaila da ketamina behar bezala dosifikatzea, eta, hortaz, arriskuak eta izan nahi ez diren ondorioak handiagotu egiten dira.



Ez hartu baldin eta...



...gaixotasun mentalen bat baduzu.

...gibelego, pankreako edo bihotzeko arazoak badituzu.

...sendagaiak hartzen ari bazara.

...haurdun bazaude edo bularra ematen ari bazara.

...arriskuko edo arreta handiko zer edo zer egin behar baduzu, esate baterako, gidatu egin behar baduzu.

...hazteko adinean bazaude.

Hartzea erabaki baduzu...

hartu baino lehen

Substantziaren berri jakitea komeni da, gozamina eta arriskuak zuk zeuk neurtzeko.

Informazioa eskuratzeko bide ona Ai Laket!! elkarte programetara jotzea da. Substantziari berari buruzko informazioa emango dizugu, bai eta dosiari buruzkoa ere, printzipio aktiboaren kopurua, aizunketa...



Kontsumoa planifikatzea da onena. Zeure buruari mugak ezarri, eta bete itzazu.



Ongi txikitu, sudurreko zauriak eta hemorragiak saihesteko.



hartu bitartean

Erabili zure turutoa eta ez utzi beste inori. Hartara, gaixotasunak kutsatzeko arriskua murriztuko da (gripea, C hepatitis, ...).

Txandakatu sudurzuloak, sudur-trenkada hainbeste ez kaltetzeko.

Ketaminaren dosia ezin da speed-aren edo kokainaren dosiarekin alderatu, gogoan izan dosifikazio handi batek ondorio biziak eragin ditzakeela, desatseginak izan daitezkeenak.

Tolerantziak esperientzia psikodelikoa txikitzea eragiten du, kontsumoaldiak bakanduz hura berreskuratzea lortuko duzu, dosia handitu beharrik gabe.

Erreflexuetan, orekan... eragindako ondorioak direla eta, errazagoa da erorketak, zauriak eta lesioak izatea. Gomendagarria da ingurune ez segurua saihestea eta, orobat, mugimenduen gaineko kontrol handia eskatzen duten jarduerak.

Ketaminaren eraginpean sexu harremanak badituzu, erektzioa izatea eta orgasmora heltzea

zailagoa izan daiteke. Erabili kondoiak haurdun ez gertzeko eta sexu-transmisiozko gaixotasunik ez harrapatzeko (kandidak, herpesa eta abar). Kondoia erabiltzeko erantzukizuna zuri dagokizu, ez beste inori. Ez utzi beste inoren eskutan.

Kalte egin badizu, garrantzitsua da lasaitasuna mantentzea. Joan zaitez zaratarik eta argirik ez dagoen toki lasai batera, konfiantzazko lagunekin, eta hartu arnasa astiro eta sakon. Egoerak hobera egiten ez badu, eskatu laguntza. Beharrezkoa dela uste baduzu, deitu 112 telefonora.

hartu ondoren

Gogoratu sudurzuloak garbitzen, itsatsitako hondarrak kentzeko.

Gerta liteke hurrengo egunean nekatuta eta suminkor egotea. Saiatu, beraz, erabaki garrantzitsurik ez hartzen.

Ketamina dosi bat hartu eta 24 orduz igartzen zaio odollean eta 4 egunera gerruan. Datu horiek gutxi gorabeherakoak dira; izan ere dosiaren edo norberak drogaren arrastoak ezabatzeke duen ahalmenaren arabera aldatu egiten dira.

Gogoan izan ketamina justifikaziorik gabe edukitzeak edo kalean hartzeak 600 euro¹ edo gehiagoko isun-zigorra dakarrela. Trafikatzeak, saltzeak edo banatzeak kartzela-zigorra dakar.



¹2015/4 martxoaren 30eko Hiritar Seguratasunaren Babeserako Lege Organikoaren arabera.



Ai laket!! irabazi asmorik gabeko elkartea da eta legez kanpoko drogen kontsumitzaile zein kontsumitzaile ohiek osatzen dute. Elkartea, kontsumo arduratsuen eta drogen erabileraren arriskuak murrizteko ikuspuntuetatik, substantzia psikoaktibo ezberdinekin bizitzeko ikastearen aldeko apustua egiten du. Izan ere, drogak kontsumitzea ala ez, pertsona helduek informazioa jaso ondoren askatasunez hartu, beharrenek erabakia dela uste du. Ai laket!!-en asmoa, beraz, ez da erabaki horren gainean eragina izatea, baizik eta informazio zehatza, praktikoa eta sinesgarria eskaintzea, kontsumitzeko erabakia hartzekotan, erabakia ondo hausnartutakoa izan dadin eta kontsumitzaileek zentzudun jokatzeko informazioa izan dezaten.

Jesusen Mirabeen Sortzailearen kalea, 40 etxabe.
01001 Vitoria-Gasteiz
(+34) 945 23 15 60
ailaket@ailaket.com
www.ailaket.com